

Argitalpen eta ebaluazio prozesua

Urrats handiak eman ditu azken urteetan unibertsitateetako argitalpen-zerbitzuak beren liburu-produkzioaren ebaluazioa kalitate-irizpideen arabera bermatzeko eta, neurri batean, horiek protokolo zehatz eta ageriko batean biltzea baino ez du bilatzen dokumentu honek.

Bere lana Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) argitaletxearekin argitaratu nahi duen egileak, ziur jakingo du zein den bere liburua aztertzeke eta ebaluatzeke UEUn erabiliko den bidea, eta UEUn argitaraturiko liburua esku artean hartzen duen irakurleak argi izango du zein izan diren liburu horrek argitaratu arte pasatu dituen kalitate-iragazkiak.

Protokolo hau 2015ean abiarazi zen lehenengoz, eta harrezkero izaniko esperientziaren arabera moldatu da.

Argitalpen prozesuaren atalak

DEIALDIA

UEUk deialdi bat egingo du urtero, urtarrila-martxoa tartean, UEUn argitaratu nahi duten libururen bat idatzi duten egileek beren eskariak aurkezteko.

UEUk, bere urteko argitalpengintza-plana osatzean, lehenetsuna emango die epe horretan eta deialdi horretan aurkezturiko eskariei, eta UEUko Argitalpen Batzordeak urteroko azaro-abenduan zehaztuko du hurrengo urteko plana, deialdi horretan aurkezturiko proposamenak aztertu eta ebaluatu ondoren.

Dena den, urte osoan ere aurkeztu ahal izango dira proposamenak, behar izanez gero, deialditik kanpo; horiek ere ebaluazio-prozesu bera izango dute.

Deialdi horretatik kanpo geratuko dira liburu-proiektuak, esan nahi baita oraindik idatzi ez diren liburuak. Horien proposamenak Unibertsitate-liburuaren Sorkuntza Sustatzeko Diru-poltsen Deialdira bideratuko dira (orohar, ekainean zabalduko da urtero diru-poltsen deialdi hori eta urriaren hasierara arte izango da aurkezteko epea).

BIDALKETA

Honako hauek bidali behar zaizkio UEUko Argitalpen Batzordearen idazkariari (argitalpenak@ueu.eus):

- Liburua UEUn argitaratzeko [eskaria](#), behar bezala beteta.
- Egilearen edo egileen CVA, beste dokumentu batean.
- Liburua formatu elektronikoan.
- Liburua formatu elektronikoan, anonimizatua, hau da, egilea identifikatzeko balioko luketen datuak ezabatuta.

EBALUAZIOA

UEUren Argitalpen Batzordearen buruak erabakiko du eskari bati dagokion ebaluazio-prozesua abiaraziko den ala ez.

Prozesua abiarazita, Argitalpen Batzordeak arduradun bat izendatuko du, liburuaren jakintza-alorreko UEUkide adituen artean, ebaluazio-prozesuan sartzen den liburu bakoitzarentzat.

Arduradunaren egitekoa izango da liburu horren jarraipena egitea, idazkariarekin batera, liburu UEUn argitaratu arte edo UEUn argitaratzea erabat baztertu arte. Arduradunak jakingo du zein den liburuaren egilea, baina egileak ez du jakingo zein den arduraduna, liburu UEUn ez argitaratzea erabakitzen bada. Arduradun honek bilatuko ditu, orobat, berarekin batera pareen azterketarako ebaluazioa egingo duten aditu edo adituak (bat gutxienez, bi ahal dela); aditu hauek ez dute jakingo zein den egilea, eta egileak ez du jakingo zein diren ebaluatzaileak (double-blind).

Hala UEUko arduradunak nola eduki-ebaluatzaileek, liburuari buruzko txostena beteko dute. Azterketa eta ebaluazioarako dokumentu eredu hauek erabiliko dira

UEUko arduradunaren txostena UEUn argitaratu nahi den liburuaz: [03b1 Dokumentua](#)

Ebaluatzailearen txostena UEUn argitaratu nahi den liburuaz: [03b2 Dokumentua](#)

Azkenik, UEUko hizkuntza-arduradunak liburuaren hizkuntza-kalitateari buruzko txostena egingo du.

Argitalpen Batzordeak eta aldizkariaren kolaboratzaileak orokorrean Argitalpenen Etika Batzordeak (Committee on Publications Ethics, COPE) ezarritako Kode Etikoa eta Jardunbide Egokiak betetzen ditu. UEUren argitalpenek jarraituko duten [Argitalpenetarako Jardunbide Gida](#) (euskaraz soilik) kode horretan oinarritzen da.

ARGITARATZEA

Azterketa eta ebaluazio prozesua bukatzean UEUren Argitalpen Batzordeak erabakiko du zein diren interesgarriak UEUrentzat eta zein sartuko dituen bere argitalpen-planean, kontuan izanik aurkezturiko liburu guztiak eta finantzabide-aukerak.

Argitalpen eta ebaluazio prozesuaren berri emango da liburuaren kredituen orrian honako lerro hauekin: "Liburu honek UEUren argitalpengintzako ebaluazio-prozesua gainditu du; liburuaren jakintza-alorreko bi [/ hiru] adituk ebaluatu dute jatorrizkoa, peer review erako ebaluazioan, horietako batek [/ bik] egilearen daturik ezagutu gabe (double-blind)".

Konpromisoak eta Baldintzak

USTIAPEN ESKUBIDEAK

Halaberrez egileak Jabetza Intelektualaren ustiapen-eskubideen lagapen-kontratu bat sinatuko du UEUrekin eta, kasuan-kasu, elkarkidetzan argitalpenaren ardura hartzen duen beste erakundeekin.

Orokorrean, eskubideak mundu osorako eta hiru urterako ematen dizkie Udako Euskal

Unibertsitateari. Ondoren lana deskatalogatuko da eta obraren kopia digitala UEUren liburutegi digitalean eskainiko da, Buruxkak zein beste domeinu baliokideren batean.

Lagapen-kontratua moldagarria bada ere eredu orokor bat jarraitzen du, UEUren politika eta helburuekin bat egiten duen [eredua](#).

EPEAK

Liburuen [bidalketa](#) egiteko Deialdiaren irekiera eta itxiera epeak urtero jakinaraziko dira. Orokorrean, **martxoaren 1etik 31ra** egingo dira. Hala ere, urte osoan zehar lanak aurkezteko aukera ematen da.

Bere aldetik UEU Argitaletxea argitalpen-prozesuaren fase guztiak hurrengo epeetan egiteko konpromisoa hartzen du:

- Eskuizkribua hartu izanaren jakinarazpena: 10 egun
- Aurretiazko ebaluazioaren emaitza egileari jakinaraztea: 30 egun
- Adituek berrikusteko prozesua: 3-5 hilabetekoa
- Ebaluazioaren emaitzari buruzko jakinarazpena egileari: 20 egun, ebaluatzaileen azken txostena jaso denetik.